

Elkarbizitza berri baterako pedagogia

JARDUNALDIEN AMAIERAKO KONPROMISOAK

Euskal gizartean, inguruko gizarteetan bezala, eskolan zein eskolatik kanpo, eguneroko elkarbizitzaren arlo desberdinetan giza eskubideen urraketak gertatzen dira. Bestalde, azken hiletan aro berri baten hasieran gaudela esan liteke, elkarbizitza eredu berri eta demokratikoago baterako aukera areagotzen duena.

Abagune honetan bideratu ditugu aurtengo Jardunaldi Pedagogikoak gai honetara. Bi egunetako hausnarketa egin ondoren, **honakoa adierazi nahi dugu**:

- Ikastoletan aspaldikoa da Giza Eskubideetan oinarritutako Elkarbizitza ereduaren aldeko apustua. Honela, 1997an “Bakegintza eta Hezkuntza” izenburuko IV. Jardunaldi Pedagogikoak antolatu genituen, baita, “Arian Arian” izenburuko ikasmaterialak prestatu ere. **Hala ere, egoera berriak apustu hori eguneratzea eskatzen du orain.** Egunotako egoeraren aurrean bat egin dugu oraintsu hezkuntzako eta gizarteko beste eragile batzuekin batera adierazpen publikoan. Adierazpen horretan esaten da “euskal gizarteak argia eta ilusioa galdatzen diela hezkuntza-eragileei askatasun osoko etorkizunari bidea zabal diezaioten, non gatazkak eta desadostasunak bortizkeriarik gabeko bideak erabiliz konponduko diren”.

Gaur, berretsi egin nahi dugu adierazpen hori eta, hezkuntzaren esparruan bereziki landu ditzakegun konpromisoekin batera, **gizarte zabalarekin ere prest gaude gaiaz gogoetatzeko.** Kontuan izan bi galdera ekarri ditugula bukatzeaz diren jardunaldi hauetara: Zer egin beharko genuke, etorkizunean gerta ez dadin iraganean jasan duguna? Zein izan daiteke Hezkuntza Sistemaren, ikastolon ekarpena, Euskal Herrian zabaltzen ari den elkarbizitza marko berria eraikitzeak? Hauek, eta hauen harira beste galdera asko egiteko garaia da, orain arte agerian azaleratzea zailak zirenak.

- Plaza partekidetua baztertu gabe, ordea, eskolak, ikastolak hor barruan, gizartearen zatia gara eta gure ekarpena egitea dagokigu, gure alorretik, hezkuntzatik, iragana zuzentzen eta etorkizuna eraikitzen. **Euskal gizartearen kohesio soziala sustatze aldera eragin saihestezina dauka eskolak, daukagu ikastolok.**
- **Giza Eskubideak, izaera integralean hartuta, gure jardunean horietan oinarritutako elkarbizitza gauzatzen saiatzea, eta gure ikasleengan horien aldeko kontzientzia kritikoa sustatzea, dugu gure norabidearen iparra. Bide beretik jarraitzea da gure asmoa.**
- Giza Eskubide eta giza duintasunaren bideari ekinik, **elkarbizitzarako hezkuntza eskolan eguneroko gatazken trataeran eta alfabetizazioan oinarritzen den prozesua dugu.** Hauxe da gure egiteko nagusienetakoa, honela giza duintasuna edozein



ikastolenelkartea

eskubideren muina bihurtzen da, gizaki orori atxikituriko ezaugarri, inolako bereizketarik gabe.

- Eta ikastolaz ikastola gauzatu beharko dugu, **bakoitzaren autonomia baliatuta**, barne-egoera kontuan hartuta. Honetan ere “taldean pentsatu, tokian gauzatu”.

Premisa hauek kontuan hartuz, **ondoko konpromisoak azaldu nahi ditugu:**

1. **Elkarbizitzaren ikaskuntzan jarraitzea**, giza eskubideetan oinarritzen den hezkuntzaren aldeko aukera etengabe bultzatuz.
2. **Euskal curriculumean Elkarbizitzaren ikaskuntza sakontzea**. Bereziki curriculum berriaren ikas arlo eta diziplina-eremu guztietan sakonduko dugu, ikastola bakoitzeko ikasleak, hauen gurasoak eta profesionalak, bitzita osorako hezkuntzaren ikuspegitik, nor bera izaten eta elkarrekin bizitzen jakin dezagun.
3. **Ikas material berrituetan Elkarbizitzaren ikaskuntza areagotzea eta hobetzea**. Ikas material berri horiek ekarriko dituzten berrikuntza ororen artean, didaktikoak ez ezik, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aldeko errespetua eta defentsa garatuko dituzte, gizarte-eremu askotarikoan gertatzen diren edota gerta litezkeen indarkeriazko egoerei aurre hartzeko edota aurre egiteko balio praktikoa izan dezaten, ikuspegi teoriko edo moral hutsetik jokabide eraginkorretara jotzeko proposamenak izan daitezten.
4. **Prestakuntza planean Elkarbizitzaren ikaskuntza laguntzeko jarduerak diseinatzea**. Ikas material horiek duten ezagutza eta xedea azken helmugetara iritsi daitezten, gurasoei eta profesionalari zuzendutako prestakuntza-plan doituak diseinatu eta gauzatuko ditu Ikastolen Elkartek.
5. **Ikastolek elkarbizitzaren aldeko ekimen sozialetan esku hartzea**. Ikastola bakoitzak eta Ikastolen Elkartek beren inguruko herritarrek eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-talde eta erakundeek, elkarbizitzaren alde, abian jartzen dituzten ekimenetan esku hartuko dute, beti ere ikastolen ikuspegia eta jokamoldea uztartuz.
6. Euskal Herrian ematen diren edo eman daitezkeen **izaera desberdineko gatazka zein gertakizun sozialak** giza eskubideen ikuspegi integraletik **aztertzea eta lantzea**.

*“Laburbilduz, hezkuntza talde bezala, ikastola bakoitzaren autonomia zainduz, giza-
eskubideen errespetua eta ikasle bakoitzaren kontzientzia kritikoa uztartzen dituen ildoak
garatu beharra dugu, honen bidez inguruko gizartea eta gainontzeko ikasleekin
elkarreraginez, ikasleek aipaturiko baloreak bereganatzearekin batera berriazko jarrerak
eta portaerak azaltzeko gaitasuna adieraz dezaten.”*

Gasteizen, 2012ko martxoaren 15ean